

PARTE-HARTZEKO FITXA

PERTSONA EDO TALDEAREN IZENA (pertsona bat baino gehiago izatekotan)

INSTAGRAM O TIK TOK-EKO ERABILTZAILEA:

HERRIA:

BIDEOAREN IZENBURUA:

IRAUPENA: _____

ORDEZKARIAREN IZENA:: _____

SINADURA:: _____

Izen ematearen momentuan eta fitxa honetan eskatutako datua, datu pertsonala babesteko legearen arabera tratatuko dira. Emandako datuak fitxategi batean sartuko direla jakinarazten dizugu. Beste alde batetik, nahi izanez gero, emandako datu pertsonalak edo irudiak zuzentzeko, aldatzeko eta ezeztatzeko eskubidea duzu info@arabaxpress.com posta elektronikora idatziz.

Era berean, Arabaxpressek bertan aurkeztutako ikus-entzunezko piezak partekatzeko, erakusteko eta erreproduzitzeko eskubidea dauka. Gainera, antolakuntzak ARABAXPRESS Rallyaren inguruan ateratako irudiak komunikabidei luzatzeko prentsa, irratia eta telebista) eta udal espazioetan jartzeko eskubidea dauka ere.

OINARRIAK

IZEN-EMATEA

Rally-an izena-emateko epea 2020ko azaroaren 12ko goizeko 9:00etatik 2020ko azaroaren 26ko gaueko 23:59ra arte egongo da irekita. Parte-hartu nahi izatekotan izen-abizenak, herria eta Instagram eta Tik Tok eko erabiltzaile izena bidali beharko dira mezu elektronikoko baten bitartez info@arabaxpress.com helbidera.

RALLY-AREN HASIERA EGUNA

Rally-a 2020ko azaroaren 26ko arratsaldeko 18:00etatik azaroaren 29ko arratsaldeko 18:00etara egingo da. Ikus-entzunezko pieza guztiak 48 ordu horietan pentsatu, idatzi, grabatu eta bidali beharko dira.

PARTE-HARTZAILEAK.

Adin guztietako pertsonak parte-hartu ahal izango dute.

GAIA

Rally-ko ikus-entzunezko pieza guztiak antolakuntzak emandako gai jakin bat oinarri hartuta egin beharko dira. Gai hori 2020ko azaroaren 26ko arratsaldeko 18:00etan jakinaraziko du antolakuntzak @araxpress Instagram eta TikTok kontuetan.

SARIAK

- | | |
|--|------|
| - Humorezko Skech onenari saria | 100€ |
| - Narrazio bat jarraitzen duen pieza onenari saria | 100€ |
| - Koreografia onenari saria | 100€ |
| - Efektu berezi eta filtro oneri saria | 100€ |

**Talde edo pertsona bakar batek ezin izango du sari bat baino gehiago irabazi.*

PIEZEN IRAUPENA

Ikus-entzunezko pieza bakoitzaren iraupena 15 segundukoa izan beharko da gutxienez eta 60 segunduko gehienez.

ENTREGA-FORMATUA

Egindako ikus-entzunezko pieza antolakuntzak emandako parte-hartze formularioarekin batera eman beharko da.

Obra guztiak formatu bertikalean eginak izan beharko dira. H.264, MP4, edo .mov formatua izan beharko dute eta (1080 x 1920 / 1127 x 2008 pixeleko tamainan).

*Beste formatu batean egindako piezen proiektzioa ez da aseguratu eta hortaz honen parte-hartzea ez da aseguratu. Euskarriari dagokionez, pieza guztiak: info@arabaxpress.com helbidera bidali beharko dira.

KOKALEKUA:

Aurkeztutako pieza guztietan Arabako kokaleku bat agertu behar da derrigorrez behin (Trobiñu barne). Hortaz, parte-hartzaile bakoitzak bizi den Arabako herritik irten gabe grabatu beharko du pieza.

BETE BEHARREKO BESTE OINARRI BATZUK:

- Obra guztiak originalak eta berriak izan beharko dira.
- Antolakuntzak ez ditu obrek sor ditzaketen copyright urraketen aurrean erantzungo.
- Piezak guztiak euskaraz edo gaztelaniaz aurkez daitezke.
- Antolakuntzak ikus-entzunezko munduan ezagutza zabala duten hiru pertsona aukeratuko ditu irabazleen epaiak emateko.
- Epaimahaiaren erabakia behin betikoa izango da.
- Epaimahaiak sari bat edo guztiak eman gabe utz ditzake.
- Parte-hartzaileek egindako piezak jendaurrean komunikatzeko, erreproduzitzeko eta banatzeko eskubidea ematen diote antolakuntzari.
- Rally honetan parte hartzeak hemen aipatutako arauak onartzea dakar.
- COVID-19ren egungo egoera dela eta, antolakuntzak unean- uneko segurtasun neurriak jarraituz jardura egokitu ahal izango du.